

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2021eko azaroaren 8tik 12rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### UROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisia

roguneko industria-ekoizpenaren datua ahula izan zen, irailean -% 0,2 egin baitzuen atzera aurreko abetetik. Urte arteko datuei begira, aldiz, % 5,2 egin zuen gora. Jarduera-ildoan arabera, kapital-ondasunen oizpena % 0,7 jaitsi zen, eta bitarteko ondasunena, % 0,2. Aitzitik, ondasun ez iraunkorren ekoizpena % 1 zi zen, eta ondasun iraunkorrena, % 0,5. Sektore elektrikoak, aldiz, egonkor eutsi zion.

rrialdeka, hileko irakurketa positibo samarra izan zen Spainian eta Italian, eta beherakadak izan zituen antzian eta Alemanian.

### Adierazlearen azalpena

ustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo ten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz iten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen n jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### UROGUNEA: EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

PGd	5-year averages						Autumn 2021 forecast			Spring 2021 forecast		
	2003 - 07	2008 - 12	2013 - 17	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2020	2021	2022
Belgium	2.6	0.7	1.4	1.8	2.1	-5.7	6.0	2.6	1.9	-6.3	4.5	3.7
Germany	1.6	0.7	1.8	1.1	1.1	-4.6	2.7	4.6	1.7	-4.9	3.4	4.1
Estonia	8.2	-1.7	3.0	4.1	4.1	-3.0	9.0	3.7	3.5	-2.9	2.8	5.0
Ireland	5.2	-1.4	8.9	9.0	4.9	5.9	14.6	5.1	4.1	3.4	4.6	5.0
Greece	4.1	-5.5	-0.3	1.7	1.8	-9.0	7.1	5.2	3.6	-8.2	4.1	6.0
Spain	3.5	-1.3	1.9	2.3	2.1	-10.8	4.6	5.5	4.4	-10.8	5.9	6.8
France	2.0	0.4	1.2	1.9	1.8	-7.9	6.5	3.8	2.3	-8.1	5.7	4.2
Italy	1.1	-1.4	0.4	0.9	0.4	-8.9	6.2	4.3	2.3	-8.9	4.2	4.4
Cyprus	4.5	0.1	1.3	5.7	5.3	-5.2	5.4	4.2	3.5	-5.1	3.1	3.8
Latvia	9.9	-2.7	2.7	4.0	2.5	-3.6	4.7	5.0	4.0	-3.6	3.5	6.0
Lithuania	8.7	-0.4	3.2	4.0	4.6	-0.1	5.0	3.6	3.4	-0.9	2.9	3.9
Luxembourg	4.7	0.6	2.9	2.0	3.3	-1.8	5.8	3.7	2.7	-1.3	4.5	3.3
Malta	3.0	2.5	7.5	6.1	5.7	-8.3	5.0	6.2	4.8	-7.0	4.6	6.1
Netherlands	2.3	0.0	1.7	2.4	2.0	-3.8	4.0	3.3	1.6	-3.7	2.3	3.6
Austria	2.6	0.6	1.2	2.5	1.5	-6.7	4.4	4.9	1.9	-6.6	3.4	4.3
Portugal	1.1	-1.4	1.4	2.8	2.7	-8.4	4.5	5.3	2.4	-7.6	3.9	5.1
Slovenia	4.8	-1.0	2.4	4.4	3.3	-4.2	6.4	4.2	3.5	-5.5	4.9	5.1
Slovakia	7.3	2.0	2.7	3.8	2.6	-4.4	3.8	5.3	4.3	-4.8	4.8	5.2
Finland	3.6	-0.7	1.0	1.1	1.3	-2.9	3.4	2.8	2.0	-2.8	2.7	2.8
Euro area	2.2	-0.3	1.5	1.8	1.6	-6.4	5.0	4.3	2.4	-6.6	4.3	4.4

### Datuaren analisia

ropako Batzordeak (EB) Eurogunerako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak hobetu zituen 2021ean, ina 2022koak okerragotu zituen, eta aurten eta datorren urtean inflazioa % 2tik gorakoa izango dela rreratu zuen. BPGd-ak % 5 egingo du gora 2021ean (% 4,3 udaberriko aurreikuspenetan), eta % 4,3 2022an rreko aurreikuspena % 4,4). Euroguneko lau ekonomia nagusien artetik, Frantziak izango du BPGd-aren zkunderik handiena aurten (% 6,5), eta Italia (% 6,2), Espainia (% 4,6) eta Alemania (% 2,7) izango ditu etetik. 2022an, Espainia (% 5,5) izango da taldeko buru, Alemaniaren (% 4,6), Italiaren (% 4,3) eta antziaren (% 3,8) aurretik. Bruselak onartu du, hala ere, bere aurreikuspenak pandemiaren bilakaeraren nde egongo direla “neurri handia batean”, eta eskaintza zein erritmotan egokitzen zaion “ekonomiaren rrirekitzearen ondorengo eskariaren joera-aldaketa azkarrari”. Euroguneko inflazioari dagokionez, akundeak azaldu du hazkunde hori energiaren prezioen igoeraren ondorio dela “nagusiki”, “baina badirudi ndemiaren ondorengo doikuntza ekonomikoen sorta zabal bati ere lotuta dagoela, egungo maila altuak urri handi batean iragankorrak direla iradokitzen duena”. Hortaz, espero du Euroguneko inflazioa % 2,4koa itea 2021ean, % 2,2koa 2022an eta % 1,4koa 2023an.


### Adierazlearen azalpena

irne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen n adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo dasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo dasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen kutik.

Plak etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera akusten du, “erosketa-saskia” izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta tez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak rrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### RRESUMA BATUA: BPGd



### Datuaren analisia

'Gd-a % 1,3 hazi zen urteko hirugarren hiruhilekoan. Aurreko hiru hilabeteetan, apirila eta ekaina bitartean, 'Gd britaniarra % 5,5 hazi zen, Estatistiken Bulego Nazionalaren datuen arabera. Horiek horrela, kontinente harreko bigarren ekonomia handiena 2019ko azken hiruhilekoan (pandemia hasi aurretik) izandako duera-maila baino % 2,1 beherago kokatu da.


21eko uztaila eta iraila bitartean, kontsumoaren aldetik etorri zen ekarpen handiena, % 2,0 egin baitzuen ra, bigarren hiruhilekoan izandako % 7,2ko gorakadatik urrun, pandemiarengatik ezarritako murrizketak ndu zirenean. Industria sektorea % 0,8 hazi zen, eta eraikuntzak, berriz, -% 1,5 egin zuen atzera, lau uhilekoz jarraian gora egin ondoren. Zerbitzuen sektorea, herrialdeko birika ekonomikoa, % 1,6 hazi zen ugarren hiruhilekoan, aurreko hiru hilabeteetan % 6,5eko igoera izan ondoren.

### Adierazlearen azalpena

tatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena a hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomikoa bat da. Erresuma Batuak ekoizten uen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean egistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, hala presa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EB: KPI



### Datuaren analisisia

1990eko abendutik ikusten ez ziren mailetan kokatu zen. Inflazioa % 6,2ra iritsi zen urrian, aurreikuspen-tiak gaindituz (% 5,8). Energiarekin lotutako prezioen igoera handia (urtean % 30) beste osagai batzuei giten hasi da, eta horri kontsumitzaileen eskaera handia eta ekoizpen-prozesuak garestitzen ari diren uten eskasia gehitu behar zaizkio. Besteak beste, elikagaien, erregaiaren, autoen eta etxebizitzaren zioen igoerak eragin dute errekor historiko hori. Inflazioaren handitzea hauspotu duen beste alderdietako langileen eskasia izan da, ekonomiaren hainbat sektoretan soldatak igotzea eragin duena.

ko inflazioa % 0,9 igo zen, eta energia (+% 4,8), erabilitako autoak (+% 2,5) eta janaria (+% 0,9) izan ziren era horretan eragin handiena izan zuten osagaiak.

diko inflazioa, bestalde, urte arteko % 4,6an kokatu zen (espero zena: % 4,3), maximoak 1991tik.

### Adierazlearen azalpena

la hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun-iltzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, unekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EB: MICHIGANEKO UNIBERTSITATEKO KONFIANTZA



### Datuaren analisia

Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen konfiantzak ahultasun zantzuak erakutsi zituen, 10 urtetako nimoetara egin baitzuen behera, inflazio itxaropenek izan zuten igoera nabarmenaren aurrean. Datua 66,8 puntutan kokatu da, kalkulaturako 72,5 puntuen azpitik eta aurreko hileko 71,7 puntuen atzetik.

Beste aldetik, egungo egoerarenak 73,2 puntuko irakurketa izan du (vs kalkulaturako 77,2 eta aurreko hileko 77,7), eta aurreikuspenena 62,8 puntutan kokatu da (vs kalkulaturako 68,8 eta aurreko hileko 67,9).

### Adierazlearen azalpena

Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gustua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hileroko. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, ziklo ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### XINA: BALANTZA KOMERTZIALA



#### Datuaren analisia

in, kanpora egindako salmenten indarrak erabat kontrastatu zuen inportazioen ahultasunarekin, rrialdeko hazkundera moteldu egin denaren seinale. Urrian, 2020ko epe berarekin alderatuta, Txinako dasunen esportazioek % 27,1 egin zuten gora, merkatuaren aurreikuspenen gainetik eta hamahirugarren abetez jarraian bi digituko hazkundera-tasak lortuz. Bada, urteko lehen hamar hilabeteetan, Txinako portazioen guztizkoak iazko datua gainditu du dagoeneko. Inportazioak, bestalde, urte arteko % 20,6 hazi en, iraileko datua baino -% 9,7 beherago eta % 25 inguruko hazkundera-aurreikuspenen aldean, barne-kariaren dinamismo ahulagoa islatuz, higiezinaren krisiak, industria-ekoizpena kaltetu zuen elektrizitatearen kasiak eta koronabirusaren tokiko agerraldiek larriagotu zuten kontsumitzaileen gastu ahulak eraginda.

inako superabit komertziala 84.540 milioi dolarretara igo zen (aurreko 66.760 milioi dolarren aurrean).

#### Adierazlearen azalpena

lantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde batean oiztu eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde batean ekoiztu eta osten diren balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit komertziala ematen dela esaten da, u da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiagoa denean; superabit komertziala, ordea, portazioen balioak inportazioena gainditzen duenean ematen da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten jainketen balantzako osagai bat da.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/15	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	-% 0.2
11/15	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 3.7
11/15	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 3.0
11/15	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
11/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	11.5b
11/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	20.1
11/16	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.4
11/16	Frantzia	MoM EBko KPI harmonizatua	% 0.5
11/16	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 3.1
11/16	Eurogunea	Hiruhileko BPGd SA	% 2.2
11/16	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 1.1
11/16	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.8
11/17	Japonia	Balantza komertziala	-¥320.0b
11/17	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.8
11/17	Italia	Balantza komertziala guztira	--
11/17	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0.8
11/17	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	% 2.8
11/17	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1575k
11/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 1.3
11/18	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	260k
11/18	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	22.0
11/18	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
11/19	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.1
11/19	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-18
11/19	Frantzia	ILO Langabezia-tasa	% 7.9
11/19	Erresuma Batua	MoM xehek. salmentak autoen erregaiak barne	% 0.5



# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## ERRENTA ALDAKORRA

presen azken emaitzak argitaratzen ziren bitartean, astea balantze stoarekin amaitu zen Europan, eta tonu pixka bat negatiboagoarekin. Europan, baina mugimendu nabarmenik gabe burtsa-indizeetan. Europan, bilakaera positiboari esker, Stoxx 600 eta Dax indizeek errekorturikoak lortu zituzten berriro, eta Cac indizeak maximoak berritu zituen. Wall Streeten, aldiz, hiru indize nagusiek bost astez jarraian izandako bazien bolada eten zuten. Asian, Txinako burtsak nabarmendu ziren, eta Shanghai indizeak -% 1,36 egin zuen gora. Herrialdeko higiezin sektorearen likidezia-krisiak piztutako kezka gero eta handiagoa bada ere, ergrandek bi hiletan hirugarren aldiz saihestu zuen ordainketaren baldia, eta horrek inbertsiogileak lasaitu zituen. Gainera, uste da inako gobernuak sektore horren zor arazoak arintzeko neurriak harzakeela. Mundu mailan, astean gogo biziagoz espero zen erreferentzia indizearen inflazioaren datua izan zen, urte arteko % 6,2 igo zena. Hirugarren gorakada ezustekoa izan zen, eta merkatuaren aurreikuspenak inditu zituen (+% 5,8). Datu horrek Erreserba Federalaren gaineko erasoak biziagotu zituen; izan ere, aurreko astean, erakundeak tasen berari ekiteko zituen errezeloen berri eman zuen. Michiganeko inbertsitateko kontsumitzailearen konfiantzaren adierazleak ahultasun berriak erakutsi zituen. Europan, Erresuma Batuko BPGD-a gutxiago izan zen hirugarren hiru hilera, eta industria-ekoizpenak pixka bat atzera in zuen irailean. Hirugarren hiru hilera enpresen emaitzen argitalpena eragoeneko datuen % 90 ditugu eskura) burtsen euskarri izan zen, merkatuetako mehatxuak desagerrarazi baitzituen. Hala ere, AEBetan nola Europan, urte arteko akzio bakoitzeko etekinen hazkunde-tasak onak izan en hiru hilera (% 42-% 44), % 10-11 inguruko sorpresa positiboekin. Hala ere, hiruhilera tasak eta sorpresa positiboak aurreko urtekoetat baino txikiagoak izan ziren.

## ERRENTA FINKOIA:

inonotan, AEBetako inflazioaren datua ezagutu ondoren, tasek gora egin ten berriro Atlantikoaren bi aldeetan. Merkatuak igoeren ziklo larkorrako bat espero du FEDen aldetik. Bestalde, petrolioaren prezioaren gorakadaren etenak errentagarritasunen igoera handiagoak eragotzi zituen. Bund-ak +2 op egin zuen gora, -% 0,26raino, eta referentzia zertxobait handitu zituzten spreadak Alemaniarekin (Espainia errenta op). AEBetan, epe bereko treasuryak +11 op egin zuen gora, % 5,6raino. Kredituak bere diferentzialak pixka bat handitu zituen Europan.

## BISAK / LEHENGAIK:

inflazioaren tentsioak pixka bat apalagoak dira Europan AEBetan baino, eta tasen igoerari ekiteko orduan, EBZren presioa arindu egin da. Epean ere horrek azaldu zuen dolarraren indarra euroaren aurrean, duela urte 10 erdi inguruko maximoetan kokatu zena. Liberak balio pixka bat irabazi en Euroguneko dibisaren aurrean, nahiz eta ahulduta jarraitzen duen jalarterako Bankuaren azken bileratik. Lehengaiak begira, petrolioaren prezioak, aldakortasuna izan bazuen ere, aldaketarik gabe amaitu zuen urtea. Izan ere, petrolio gordinaren izakinen ezusteko beherakada bat izan zuen Ipar Amerikan. Hala ere, AEBetako inflazioaren etengabeko errenta, energiaren kostuek bultzatuta, AEBetako Gobernuak petrolio erreserba estrategiko gehiago askatzeko aukerak handitu ditu, prezioak murrizte aldera. Tasen igoerak aktibatzen orduan, banku zentralak izandako erasoak fidantzek errearen gorakada sendotu zuten.

INDIZEAK 2021/11/12		Aldaketa Astean	Ald 2021
IBEX	9.080,80	-% 0,55	% 12,47
EUROSTOXX 50	4.370,33	% 0,17	% 23,02
ALEMANIA	16.094,07	% 0,25	% 17,31
INGALATERRA	7.347,91	% 0,60	% 13,74
FRANTZIA	7.091,40	% 0,72	% 27,74
ITALIA	30.399,72	-% 0,28	% 25,60
S&P 500	4.682,85	-% 0,31	% 24,67
DOW JONES	36.100,31	-% 0,63	% 17,95
NASDAQ 100	16.199,88	-% 0,97	% 25,69
NIKKEI 225	29.609,97	-% 0,01	% 7,89
SHANGHAI	3.539,10	% 1,36	% 1,90
MSCI WORLD	3.223,82	-% 0,26	% 19,84
MSCI GORAKORRAK	1.285,48	% 1,69	-% 0,45

Gobernuen tasak 2021/11/12		Aldaketa Astean	Ald 2021
2 urte			
ALEMANIA	-0,74	-1	-4
ESPAINIA	-0,63	2	0
AEB	0,51	11	39
5 urte			
ALEMANIA	-0,57	1	17
ESPAINIA	-0,25	5	14
10 urte			
ALEMANIA	-0,26	2	31
ESPAINIA	0,46	6	41
AEB	1,56	11	65

Kreditu-Spreada (op) 2021/11/12		Aldaketa Astean	Ald 2021
ITRX EUROPE (5A)	48,74	1	1
ITRX EUR XOVER	248,37	4	7

Dibisak 2021/11/12		Aldaketa Astean	Ald 2021
\$/€	1,1445	-% 1,05	-% 6,32
Yena/€	130,35	-% 0,64	% 3,02
gpb/€	0,85	-% 0,44	-% 4,73

Lehengaiak 2021/11/12		Aldaketa Astean	Ald 2021
BRENT	82,50	% 0,00	% 61,23
URREA	1.864,90	% 2,56	-% 1,76

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.